Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2893

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 6koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Karrera Judizial eta Fiskalerako eta Idazkari Judizialen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituena.

Giza baliabideek duten garrantzi izugarria kontuan harturik eta Karrera Judizial eta Fiskalerako eta Idazkari Judizialen Kidegorako sarrera sustatzea eta erraztea beharrezkoa dela ikusirik, eta horrekin batera egonkortasuna eta Justiziak herritarrei emaniko zerbitzu publikoaren kalitate-maila bultzatzeko asmoz, herritarrek Justizia Administrazioarekin duten gogobetetze-maila eta konfiantza handitu nahi da. Hortaz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egoki iritzi dio duela hamar urte baino gehiago emaitza onekin hasitako bidea jarraitzeari, eta agindu honen bitartez diru-laguntza batzuk prestatu ditu Zuzenbidean lizentziatu direnak motibatzeko, beren jomuga profesionalak Karrera Judizial eta Fiskalera eta Idazkari Judizialen Kidegora bideratu ditzaten, hain zuzen ere. Horrela, Justizia Administrazioak giza baliabide egonkorrak izango ditu eta horrekin guztiarekin eraginkortasuna eta kalitatea hobetu egingo dira.

Hori dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak Onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearekin bat etorriz, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– Karrera Judizial eta Fiskalerako eta Idazkari Judizialen Kidegorako oposizioak prestatzeko 40 beka emateko lehiaketaren deialdia egitea da agindu honen helburua.

2.– Ezinduen laneratzea sustatzeko xedearekin, beketako bi pertsona horientzat izango dira. Inor aurkezten ez delako edo izangaiek deialdi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztelako beka horiek eman gabe gelditzen badira, gainerakoei metatuko zaizkie.

2. artikulua.– Beken zenbatekoa.

1.– Beka bakoitzaren zenbatekoa urtean 6.600 eurokoa izango da. Hilero 550 euro ordainduko dira, hilabetea amaitu aurretik.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2893

ORDEN de 6 de mayo de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se dictan normas destinadas a la concesión de ayudas económicas para la preparación de oposiciones a las Carreras Judicial y Fiscal y al Cuerpo de Secretarios Judiciales.

Partiendo de la base de la importancia capital de los recursos humanos y una vez constatada la necesidad de fomentar y favorecer el acceso a las Carreras Judicial y Fiscal y Cuerpo de Secretarios Judiciales, a fin de propiciar la estabilidad y con ello el adecuado nivel de calidad del servicio público de la Justicia que incremente el grado de satisfacción y confianza de la ciudadanía en la Administración de Justicia, se ha considerado oportuno continuar con la línea de actuación emprendida hace ya más de una década, con resultados satisfactorios, manteniendo mediante la presente Orden una línea de ayudas que tienen como objetivo motivar a los/las licenciados/as en Derecho para que dirijan sus aspiraciones profesionales hacia las Carreras Judicial y Fiscal y al Cuerpo de Secretarios Judiciales, facilitando así a la Administración de Justicia medios personales estables y contribuyendo con ello a un mejor grado de eficacia y calidad.

Por ello, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2011,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden convocar concurso para otorgar 40 becas destinadas a la preparación de oposiciones a las Carreras Judicial y Fiscal y al Cuerpo de Secretarios Judiciales.

2.– A fin de favorecer la integración laboral de las personas discapacitadas, dos de las becas se reservan para las personas que posean tal condición. Si las mismas fueran declaradas desiertas, por falta de concurrencia o por no cumplir los/as aspirantes las condiciones exigidas en la presente convocatoria, se acumularán a las restantes.

Artículo 2.– Dotación económica.

1.– El importe de cada una de las becas será de 6.600 euros anuales. El devengo se producirá a mes anticipado, a razón de 550 euros mensuales.

2.– Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzetarako hogeita bi mila (22.000) euro daude 2011ko ekitaldian, eta berrehun eta berrogeita bi mila (242.000) euroko konpromisoko kreditua 2012rako, EAEko aurrekontu orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura.

3. artikulua.– Iraupena.

Beken iraupena urtebetekoa izango da. Nolanahi ere, bekadunak hautaketa-prozesua gainditu eta gero, Estatuko Aldizkari Ofizialean izendapena argitaratzen den egunean bukatuko dira bekak, eta hortik aurrera bekadunak jasotzen dituen diru-zenbatekoak itzuli egin beharko ditu.

4. artikulua.– Baldintzak.

1.– Hauek dira beka eskuratu ahal izateko baldintzak:

a) Hautagaia aurkezten den oposizioaren azken deialdiko baldintzak betetzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea eta azken zazpi urteetatik gutxienez bostetan bertan bizi izatea.

c) Zuzenbidean lizentziatua izatea.

d) Karrera Judizial edo Fiskaleko nahiz Idazkari Judizialen Kidegoko prestatzaile baten zuzendaritza izatea. Prestatzailea beste kidego batekoa izan daiteke, baldin eta prestakuntza-prozesua gidatzeko merezimenduak dauzkala irizten bazaio. Horretarako, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzak behar bezala arrazoitutako baimena eman beharko du.

e) Hiru urteko gehieneko epean -jarraian edo aldizka- deialdi honetan aipatzen diren oposizioak prestatzeko laguntzen onuradun ez izatea, artikulu honetako 2. paragrafoan aurreikusitako kasuan izan ezik.

f) Zinpeko aitorpena, zigor- eta administrazioarloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela adierazten duena, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean dagoela ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

2.– Aurreikusitako laguntza guztiak ematen ez badira, honakoek izango dute laguntza eskuratzeko aukera: aurreko bost urteetako epea kontuan hartuta, gehienez hiru urtetan -jarraian edo aldizka- deialdi

2.– Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, durante el corriente ejercicio 2011, la cantidad de veintidós mil (22.000) euros y un crédito de compromiso para el año 2012 de doscientos cuarenta y dos mil (242.000) euros con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 3.– Duración.

Las becas tendrán la duración de un año. No obstante, finalizarán en la fecha de nombramiento publicada en el Boletín Oficial del Estado tras la superación del proceso selectivo del becario/a, quedando obligado/a el/la becario/a a reintegrar las cantidades que hubiere podido percibir con posterioridad.

Artículo 4.– Requisitos.

1.– Los requisitos para acceder a la concesión de la beca son:

a) Cumplir las condiciones exigidas en la última convocatoria de la Oposición a la que se presenta el/la candidata/a.

b) Estar empadronado y tener residencia efectiva en la Comunidad Autónoma de Euskadi al menos cinco de los últimos siete años.

c) Poseer la Licenciatura en Derecho.

d) Disponer de la dirección de un/a preparador/a que deberá pertenecer a la Carrera Judicial o Fiscal, o al Cuerpo de Secretarios Judiciales. La citada pertenencia podrá exceptuarse mediante autorización expresa y motivada de la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia, cuando se estimare que el preparador/a reúne meritos suficientes como para ser calificado como apto/a para dirigir el proceso preparatorio.

e) No haber sido beneficiario/a durante un máximo de tres años, continuados o alternos, de cualquier tipo de beca o ayuda para la preparación de oposiciones a las que se refiere la presente convocatoria, salvo aquellos que se encuentren en el caso previsto en el apartado 2 del presente artículo.

f) No estar sancionado/a penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– En el supuesto que no queden cubiertas la totalidad de las ayudas previstas, podrán optar a las mismas, todos aquellos solicitantes que hubieren sido beneficiarios/as, en el espacio de los cinco años in-

honetan aipatzen diren oposizioak prestatzeko bekak edo laguntzak eskuratu dituzten eskatzaileek. Horiek laguntza laugarren urtez jaso ahal izango dute.

5. artikulua.– Merezimenduak baloratzea.

1.– Onuraduna izateko, honako merezimenduak baloratuko ditu, oro har, Hautaketa Batzordeak:

a) Diru-beharra, behar bezala egiaztatuta: 0tik 35 puntura emango dira.

b) Ikasketa-espedientea: 0tik 35 puntura emango dira.

c) Eskatzaileak euskaraz jakitea: 0tik 20 puntura emango dira.

d) Oposizioak prestatzeko benetako interesa izatea. Jadanik ikasten hasita egoteak erakutsiko du interes hori: 0tik 8 puntura emango dira.

e) Aurreko urteetan bekaduna izatea: 0tik 2 puntura emango dira.

2.– Onuraduna izan ahal izateko, merezimendu hauek baloratuko dizkie Hautaketa Batzordeak agindu honetako 4. artikuluko 2. paragrafoko eskatzaileei:

a) Diru-beharra, behar bezala egiaztatuta: 0tik 45 puntura emango dira.

b) Ikasketa-espedientea: 0tik 15 puntura emango dira.

c) Eskatzaileak euskaraz jakitea: 0tik 15 puntura emango dira.

d) Laguntza eskatutako oposizioetako azterketaren bat azken hiru urteetan gainditu izana: 0tik 25 puntura emango dira.

3.– Eskatzaileak ikasketa-espedientearekin gutxienez 3,5eko puntuazioa lortzen ez badu, baztertu egingo da besterik gabe, eta ez zaio beste merezimendurik baloratuko.

4.– Artikulu honetako 1. paragrafoko d) idatz-zatia (jadanik ikasten hasita egotea) betetzen dela egiaztatzeko, prestatzaileak prestakuntza-aldia justifikatzeko egindako txostena eta 6.2 artikuluan eskatzen diren gainontzeko agiriak bidali behar dira.

Bestalde, 2. paragrafoko d) idatz-zatian adierazitakoa (laguntza eskatutako oposizioko azterketaren bat azken hiru ureetan gainditu izana) frogatzeko, 6.2 artikuluan eskatutako agiri guztiez gain, beste agiri hauek aurkeztu behar dira: epaimahaiaren edo erakunde eskudunaren ziurtagiria, BOEren fotokopia

mediatamente precedentes, de las ayudas de convocatorias anteriores durante un máximo de tres años continuados o alternos, de cualquier tipo de beca o ayuda para la preparación de oposiciones a las que se refiere la presente convocatoria, pudiendo optar a un cuarto año de la ayuda.

Artículo 5.– Valoración de méritos.

1.– Se considerarán méritos valorables en su conjunto por la Junta de Selección, para acceder a la condición de beneficiario:

a) Las necesidades económicas debidamente justificadas, que serán valoradas conforme a una escala de 0 a 35 puntos.

b) El expediente académico, cuya valoración será de 0 a 35 puntos.

c) Conocimiento de euskera del solicitante, de 0 a 20 puntos.

d) El marcado interés en la preparación de la oposición, demostrable por el hecho de haber iniciado ya su estudio, de 0 a 8 puntos.

e) El ser becario en años anteriores, de 0 a 2 puntos.

2.– Para aquellos solicitantes incluidos en el apartado 2 del artículo 4 de la presente Orden, se considerarán méritos valorables en su conjunto por la Junta de Selección, para acceder a la condición de beneficiario:

a) Las necesidades económicas debidamente justificadas, que serán valoradas conforme a una escala de 0 a 45 puntos.

b) El expediente académico, cuya valoración será de 0 a 15 puntos.

c) Conocimiento de euskera del solicitante, de 0 a 15 puntos.

d) El haber aprobado en los tres últimos años algún examen de la oposición por la que se solicita la ayuda, de 0 a 25 puntos

3.– Los/las solicitantes cuyos expedientes académicos no alcancen una puntuación mínima de 3,5 resultarán excluidos/as automáticamente sin que se entre a valorar otros posibles méritos.

4.– La circunstancia del apartado d) del párrafo 1 del presente artículo, haberse iniciado ya su estudio, debe demostrarse remitiendo, junto al resto de la documentación exigida en el artículo 6.2, informe del preparador justificando el período de preparación.

Asimismo, la circunstancia del apartado d) del párrafo 2, haber aprobado en los tres últimos años algún examen de la oposición por la que se solicita la ayuda, debe demostrarse remitiendo, junto al resto de la documentación exigida en el artículo 6.2, certificación del Tribunal u órgano competente, copia BOE

edo laguntza eskatutako oposizioko azterketaren bat azken hiru urteetan gainditu izana frogatzen duen beste edozein agiri.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta formalizatzea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluak agindutakoaren arabera, eskabideak -eredua agindu honen I. eranskinean dago- Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzara bidali behar dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), behar bezala beteta eta agiri hauekin batera:

a) Nortasun-agiri nazionalaren (NAN) fotokopia.

b) Eskatzailearen zinpeko aitorpena, prestatu nahi duen oposizioaren azken deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituela, beste bekarik ez daukala eta ordaindutako lanik egiten ez duela adierazten duena.

c) Udal-agiria, eskatzaileak administrazio-egoitza eta benetako egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan daukala eta 4.1.b) artikuluan ezarritako aldian EAEn bizi izan dela ziurtatzen duena.

d) Eskatzailearen egoera pertsonala azaltzen duen memoria (familiako kideak, egindako beste ikasketak, interesa eta oposizioa prestatzen igarotako denbora, etab.). Aurreko deialdietan onuradun izan diren eskatzaileek familia unitatea osatzen duen kide-kopuruari buruzko informazio eguneratua ematen duen memoria besterik ez dute aurkeztu beharko.

e) Eskatzailea mendean duten pertsonen egoera ekonomikoa egiaztatzeko ziurtagiria. Horretarako, 2010. urteko Errentaren Gaineko Zerga-aitorpenaren behin-behineko edo behin betiko likidazioaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo bestela, 2010ean izandako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak.

Horretaz gain, eskatzaileak edo eskatzailea mendean duten pertsonek, aitorpena egitetik salbuetsita egon edo ez egon, 2010. urtean langabezia, aurreerretiro, gizarte-larrialdietarako diru-sarrera, gizarteratze edo bestelako diru-sarrera osagarriak jaso badituzte, INEMen, Gizarte Segurantzaren edo dagokion erakunde edo organoaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

o cualquier otro documento que acredite de manera fehaciente la aprobación de algún examen de la oposición por la que se solicita la ayuda en los tres últimos años.

Artículo 6.– Presentación y formalización de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de las solicitudes será de tres meses a partir de la fecha de publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Las solicitudes, cuyo modelo se incluye como anexo I a la presente Orden, deberán remitirse, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, a la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia del Departamento de Justicia y Administración Pública (c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1; 01010 Vitoria-Gasteiz) debidamente cumplimentada y acompañada de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad –DNI–.

b) Declaración jurada del solicitante en la que manifieste reunir los requisitos exigidos en la última convocatoria de la Oposición que desea preparar, así como que no disfruta de otro tipo de beca ni realiza trabajo remunerado.

c) Certificación municipal que acredite la vecindad administrativa y la residencia efectiva en la Comunidad Autónoma de Euskadi, por el plazo fijado en el artículo 4.1.b).

d) Memoria explicativa de la situación personal del solicitante (miembros de la familia, otros estudios realizados, interés y tiempo de preparación de la oposición, etc.). Aquellos/as solicitantes que han sido beneficiarios/as en convocatorias anteriores únicamente aportarán memoria con información actualizada sobre el número de miembros que componen la unidad familiar.

e) Documentación acreditativa de la situación económica de las personas de quienes el/la solicitante dependa. A tal efecto, se presentaran fotocopia de la liquidación provisional o definitiva de la declaración del Impuesto de la Renta correspondiente al ejercicio 2010 y/o certificados acreditativos de ingresos percibidos durante 2010.

Asimismo, en su caso, se aportaran certificaciones del INEM, Seguridad Social, entidad u órgano correspondiente sobre aquellos ingresos complementarios relativos a prestaciones por desempleo, prejubilación, ingreso de emergencia social, inserción social u otro tipo, percibidos durante el 2010 por el/la solicitante o personas de quienes dependa, tanto estén exentos como incluidos en la declaración correspondiente.

f) Espediente akademiko osoaren originala edo kopia konpultsatua, eskatzen den titulazioa lortu dela egiaztatzen duena. Agiri hau aurreko deialdietan aurkeztu duten onuradunek oraingo honetan ez dute aurkeztu beharrik.

g) Euskara-maila egiaztatzen duen dokumentazioaren originala edo kopia konpultsatua. Agiri hau aurreko deialdietan aurkeztu duten onuradunek oraingo honetan ez dute aurkeztu beharrik.

Merezimendu hori aipatu arren behar adina agiri aurkezten ez bada, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzak aldez aurretik neurtuko du jakite-maila hori, horretarako ariketa egokien bidez.

Proba horietan parte hartu nahi izanez gero, ezinbesteko baldintza izango da eskabidean espresuki adieraztea.

h) Eskatzailea urritua bada, urritasunaren ehuneko 33a edo hortik gora aitortua izan beharko du, eta hori eskumena duen administrazio-organoak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da.

i) Banketxearen datuak (II. eranskina), aurreko deialdietako onuradunek edo datu horiek aldatu nahi dituztenek izan ezik.

3.– Eskatzaileak zein oposaketetan (Epailea, Fiskala edo Idazkaria) parte hartu nahi duen adierazi beharko du aurkezten dituen agirietan, prestatzaileekin izandako errendimendua egiaztatu ahal izateko.

7. artikulua.– Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzak eskatzaileek aurkeztutako agirietan zerbait falta dela ikusten badu, 10 eguneko epea emango du akatsak zuzentzeko.

8. artikulua.– Hautagaiak aukeratzea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, hautagaiak aukeratzeko proposamena batzorde batek egingo du. Batzordea pertsona hauek osatuko dute, edo berauek ordezko gisa jarritakoek:

Batzordeburua:

Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendaria.

f) Expediente Académico completo, original o copia compulsada, que acredite la obtención de la titulación requerida, están eximidos de esta obligación aquellos/as beneficiarios que lo hubieran aportado en anteriores convocatorias.

g) Documentación acreditativa original o copia compulsada, en su caso, del nivel de conocimiento de euskera, están eximidos de esta obligación aquellos/as beneficiarios que lo hubieran aportado en anteriores convocatorias.

Cuando se alegue tal mérito y no se aporte documentación suficiente, la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia, con carácter previo, procederá a comprobar el grado de conocimiento mediante la realización de las pruebas pertinentes.

En el supuesto de querer participar en dichas pruebas será requisito inexcusable consignarlo expresamente en el apartado correspondiente de la solicitud.

h) Cuando se trate de personas discapacitadas, los/las solicitantes deberán tener reconocida tal condición, con discapacidad de grado igual o superior al 33 por ciento, que se acreditará mediante certificación expedida por el órgano administrativo competente.

i) Datos bancarios (anexo II), salvo aquellos/as beneficiarios/as de convocatorias anteriores o que quisieran modificar dichos datos.

3.– En la documentación presentada deberá indicarse la Oposición (Juez, Fiscal o Secretario) a la que opte el/la peticionario/a, a efectos de comprobación de rendimiento con los/as respectivos/as preparadores/as.

Artículo 7.– Subsanación de defectos de la solicitud.

Si, a la vista de la documentación presentada por los/as solicitantes, la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia comprobara que la misma es incompleta, concederá a los/as mismos/as un plazo máximo de 10 días para la subsanación de los defectos detectados.

Artículo 8.– Selección de candidatos/as.

1.– Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la propuesta de selección de candidatos/as se realizará por una Junta que estará integrada por las personas que a continuación se relacionan, o aquéllas en quien deleguen:

Presidente:

– Ilmo. Sr. Director para la Modernización de la Administración de Justicia.

Batzordekideak:

– Karrera Judizialeko kide bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakariak izendatua.

– Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia.

– Justizia eta Herri Administrazio Saileko Justiziaren zuzendaria.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako idazkaria.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide fakultateetako dekanoak. Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzako teknikari bat izango da idazkaria; zuzendariak izendatuko du.

2.– Ezarritako baremoarekin bat etorriz aukeratuko dira hautagaiak, Hautaketa Batzordeak onartzen duen garapenaren arabera, eta horren bidez baloratuko dira eskatzaileek aurkeztutako merezimenduak. Erabakiak batzordeko kideen gehiengo osoaren bidez hartuko dira. Berdinketarik egonez gero, lehendakariak izango du kalitate-botoa.

3.– Lortutako puntuen hurrenkeraren arabera eta hautagaiek zein kidegotako oposizioa egin behar duten kontuan hartu gabe, aukeratutako 40 pertsonen zerrenda egingo du batzordeak. Aukeratuen atzetik puntu gehien lortu dituzten beste 10 eskatzaileekin, berriz, ordezkoen zerrenda osatuko du. Azken zerrenda hori erabiliko da onuradun izaera bukatu, horri uko egin, baldintzak bete ez, ezintasunen bat gertatu edota beste edozein gertakizunen eraginez onuradun izaera galtzen den kasuetarako. Beti ere dena delako egoera hori laguntza ematen denetik bi hilabete igaro baino lehenago gertatzen bada.

4.– Lehentasunezko merezimenduen baremoaren arabera lortutako puntuen hurrenkerari jarraituz egingo da 10 ordezkoen zerrenda.

5.– Deialdi honetako bekaren bat hutsik geldituz gero, ordezkoen zerrendako lehenengoari emango zaio, ordezkatuari gelditzen zitzaion denborarako, hirugarren artikuluan ezarritako mugarekin.

Dena dela, laguntza hori ekitaldiko aurrekontuko diru-baliabideen menpe egongo da.

9. artikulua.– Bekak esleitzea.

1.– Hautaketa Batzordearen proposamena aztertu ondoren, Justiziako sailburuordeak deialdia ebatzi eta aukeratutako hautagaiak, ordezkoak eta, baleude, hutsik gelditutako laguntzak adieraziko ditu. Ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epearen barruan eman eta jakinaraziko da, agindu hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita. Aipatutako epean berariazko ebazpenik izan ezean, eskabideak ezetsitzat jo beharko dira.

Vocales:

– Un/una miembro de la Carrera Judicial designado/a por el Excmo. Sr. Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

– Excmo. Fiscal Superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Ilma. Sra. Directora de Justicia del Departamento de Justicia y Administración Pública.

– Ilma. Sra. Secretario de la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Ilmos. Sres. Decanos de las Facultades de Derecho sitas en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Actuará como Secretario un Técnico de la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia, designado por su titular.

2.– La selección de los candidatos/as se realizará de conformidad con los baremos establecidos, según el desarrollo que apruebe la Junta de Selección, a través del cual valorará los méritos acreditados por los/las solicitantes. Los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de los miembros de la Junta; en caso de empate el Presidente gozará de voto de calidad.

3.– La Junta propondrá, junto con la relación de los 40 candidatos/as seleccionados/as, en función de la puntuación obtenida e independientemente del Cuerpo al que opositaren, otra referida a los 10 solicitantes que hubieren obtenido las puntuaciones inmediatamente posteriores, como sustitutos/as para los supuestos de finalización, renuncia, incumplimiento, incapacidad sobrevenida o cualquier otro supuesto que implicare la pérdida de la condición de beneficiario/a, siempre que se produjere en el plazo de dos meses desde la concesión de las ayudas.

4.– La relación de los 10 sustitutos/as se numerará según el orden de puntuación obtenida conforme a los indicados baremos de méritos preferentes.

5.– Producida una vacante en las becas concedidas en la presente convocatoria, se asignará al primer sustituto/a de la relación con la duración que le restare al sustituido/a hasta alcanzar lo establecido en el artículo tercero.

En cualquier caso, la asignación de dicha ayuda estará subordinada a las disponibilidades presupuestarias del ejercicio.

Artículo 9.– Adjudicación de las becas.

1.– Una vez analizada la propuesta de la Junta de Selección, la Viceconsejera de Justicia resolverá la convocatoria declarando los/las candidatos/as seleccionados/as, sus sustitutos/as y, en su caso, las vacantes que se estimaren pertinentes. La resolución será dictada y notificada en un plazo máximo de seis meses a contar desde la entrada en vigor de la presente Orden. En caso de no resolverse de forma expresa en el

Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justicia eta Herri Administrazioko Sailburuari, hilabeteko epearen barruan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluarekin eta hurrengoekin bat etorriz.

2.– Prozedurako ebazpena banan-banan jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Justiziako sailburuordearen ebazpenaren bidez jakinaraziko dira aukeratutako hautagaien, ordezkoen eta hutsik geratutako laguntzen zerrendak eta emandako beken zenbatekoak.

10. artikulua.– Beken baldintzak.

1.– Bekak dirauen bitartean ezin da bestelako bekarik jaso, ez eta ordaindutako zerbitzurik egin ere, organo judizialetan edo fiskaltzan ordezkapenak egiten direnean izan ezik. Kasu horretan, eskaria egin ondoren, ordezkapenak dirauen bitartean -gehienez ere 6 hilabete- bekak dakartzan diru-eskubideak jasotzearen etena deklaratuko da.

2.– Diru-eskubideak jasotzearen etena deklaratu daiteke, halaber, bekadunak istripu edo gaixotasun larri baten ondorioz ezintasunen bat izaten badu, behar bezala egiaztatzen badu eta aurreko idatz-zatian ezarritako denbora-muga gainditzen ez badu.

3.– Aipatutako epea iraganik, beka etetea ekarri zuten arrazoiek bere horretan badiraute, beka amaitutzat joko da, 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

11. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

1.– Beka onartzeak deialdi honetako arau guztiak onartzea dakarkio onuradunari eta, zehazki, 10. artikuluan adierazitako gorabeheraren bat gertatuz gero, horren berri ematea.

Beka emateko ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik 15 egun igaro ondoren, beka onartutzat joko da, onuradunak kontrakorik adierazten ez badu.

2.– Karrera Judizialeko edo Fiskaleko edo Idazkari Judizialen Kidegoko kideek ematen dituzten prestakuntza-ikastaroetara erregulartasunez eta aprobetxamenduz joan beharko du, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzak ez joateko baimena ematen dion kasuetan izan ezik.

3.– Deialdi hau egin ondorengo lehen hautaketa-prozesuan parte hartu beharko du, bi gertaera horien artean gutxienez urte bateko tartea baldin badago. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren lanpostuak lehenetsiko ditu.

plazo indicado, las solicitudes se entenderán desestimadas. Contra dicha resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada en el plazo de un mes ante la Consejera de Justicia y Administración Pública conforme a lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

2.– Sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de la resolución del procedimiento, mediante resolución de la Viceconsejera de Justicia se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de los candidatos/as seleccionados/as, sus sustitutos/as y, en su caso, las vacantes, así como de las cuantías de las becas concedidas.

Artículo 10.– Condiciones de las becas.

1.– El disfrute de la beca es incompatible con la percepción de cualquier otra beca o con la realización de cualquier prestación de servicios remunerada, salvo que se trate del desempeño de labores de sustitución en Órganos Judiciales o en Fiscalía, en cuyo caso y previa solicitud se declarará la suspensión de la percepción de los derechos económicos que conlleva la beca durante el tiempo que dure tal prestación, que en ningún supuesto superará el plazo de 6 meses, durante el transcurso del disfrute de la beca.

2.– Igual declaración de suspensión podrá efectuarse en caso de incapacidad sobrevenida por causa de accidente o enfermedad grave del beneficiario, siempre que se acredite debidamente y no supere el límite de tiempo establecido en el punto anterior.

3.– Una vez transcurrido dicho plazo, si en uno u otro caso persisten las circunstancias que dieron origen a la suspensión de la beca, se considerará ésta finalizada de acuerdo con lo previsto en el artículo 8.

Artículo 11.– Obligaciones del beneficiario/a.

1.– La aceptación de la beca por parte de la persona beneficiaria implica la de todas las normas fijadas en la presente convocatoria y, en concreto, la de comunicar el sobrevenimiento de alguna de las circunstancias recogidas en el artículo 10.

La subvención se entenderá aceptada si, transcurridos 15 días desde el siguiente a la notificación de la resolución de concesión, no se manifestara lo contrario por el/la beneficiario/a.

2.– Asistir con regularidad y aprovechamiento a los cursos de preparación impartidos por miembros de la Carrera Judicial o Fiscal, o al Cuerpo de Secretarios Judiciales, salvo autorización de la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia.

3.– Participar en el primer proceso selectivo posterior a la presente convocatoria, siempre que medie al menos un año entre ambas circunstancias, así como solicitar con carácter preferente todos aquellos destinos que se oferten en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– Oposizioa prestatzerakoan sortutako gastuak justifikatzen dituen txostena bidali beharko du hiru hilero, aldi horretan prestatzaileak egindako fakturen kopiekin batera.

5.– Diru-laguntzaren indarraldian gorabeherarik gertatuz gero, horren berri eman beharko dio Administrazioari.

6.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak diru-laguntzen erabilera fiskalizatzeko lanetan eskatzen dioten informazio guztia eman beharko du.

7.– Hautaketa-prozesua gainditu eta lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoan lortuz gero, gutxienez bi urtez Autonomia Erkidegoan lan egin beharko du, bere esku ez dauden arrazoiengatik ezinezkoa zaionean izan ezik.

8.– Onuradunak deialdi honetako baldintzaren bat bete gabe uzten badu, emandako beka baliogabetu ahal izango da, eta, ondorioz, dirua itzuli beharko du; betiere ondokoekin bat etorriaz: Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua (53. artikulua eta bateragarriak); 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena (1992-02-07ko EHAA, 26. zk.), edo ordezten duen araua.

12. artikulua.– Onuradunei jarraipena egitea.

1.– Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzak, prestatzaileen bitartez, bekadunei jarraipena egingo die. Horretarako, prestatzaileei hiru hilean behin txostena eskatuko die, eta txostenean oinarrituz, beka jasotzeko eskubidea galdu den ala ez ebatziko du. Eskubidea galduz gero, galera sorrarazi duen gertakaria gertatu den une berean izango ditu ondorioak eta egun horretatik aurrera jasotako dirua itzuli beharko du bekadunak.

2.– Prestatzaileek, aldizka eskatzen zaien txostena egiteaz gain, bekadunen aprobetxamenduan gertatzen den edozein gorabeheraren berri eman beharko diote Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzari.

4.– Remitir trimestralmente Memoria justificativa de los gastos realizados en la preparación de la oposición, adjuntando copia de las facturas emitidas durante dicho período por el preparador/a.

5.– Comunicar a la Administración cualquier eventualidad que pudiere surgir durante el plazo de vigencia de la ayuda económica.

6.– Facilitar cuanta información le fuere requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

7.– En el supuesto de haber superado el proceso selectivo y obtenido destino en la Comunidad Autónoma de Euskadi, prestar servicios durante un período mínimo de dos años en el ámbito de la Comunidad Autónoma, salvo que causas ajenas a su voluntad se lo impidan.

8.– El incumplimiento por el/la beneficiario/a de cualquiera de las condiciones establecidas en esta convocatoria podrá ser causa de revocación de la beca concedida, procediéndose a su reintegro de conformidad con lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, concretamente en los artículos 53 y concordantes y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad, Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión (BOPV. n.º 26, de 7 de febrero de 1992) o norma que lo sustituya.

Artículo 12.– Seguimiento de los/las beneficiarios/as.

1.– La Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia realizará el seguimiento de los/las becarios/as; para ello solicitará trimestralmente un informe a los/las preparadores/as, y en base a los citados informes, se podrá resolver sobre la pérdida del derecho a la percepción de la beca, que surtirá efectos desde el momento en que se hubiere producido el supuesto que dé origen a la pérdida del derecho, quedando obligados al reintegro de las cantidades correspondientes desde esa fecha.

2.– Sin perjuicio del informe que periódicamente se solicite a los preparadores/as, éstos/as deberán comunicar a la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia cualquier eventualidad que pudiere surgir en el aprovechamiento de los/las becarios/as.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 6a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes ante la Consejera de Justicia y Administración Pública o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de 2 meses contados desde el día siguiente a la publicación de la misma.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

1.– Deialdiaren datuak:
Deialdiaren izena. .....

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Zenbakia.....Data.....

2.– Eskatzailearen identifikazio-datuak:
Izena. .....NAN.....
Helbidea. .....Telefonoa.....
Herria. .....Lurralde historikoa .....
Bankua .....
Sukurtsala. .....Kontu-zk. .....

3.– Eskatzaileak egin nahi duen oposizioa:

4.– Prestatzailearen datuak:
Prestatzailearen izena. .....
Lanbidea. .....

5.– Beka emateko betekizun guztiak betetzen ditudala aitortzen dut.

6.– Ez zait ezarri diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan ez zigor arloko, ez administrazio arloko zehapenik, ezta horiek jasotzea oztopatzen didan debeku legalik ere.

7.– Deialdiko arauak beteko ditudala eta eskatzen zaizkidan argibideak eta agiriak emango ditudala agintzen dut.

8.– Deialdian eskatutako agiriak erantsi ditut.

9.– Euskararen ezagutza egiaztatzeko probetan parte hartu nahi dut. Bai ☐ Ez ☐

2011ko .....(r)en.....a
(Sinatua)

«Eman dizkiguzun datu pertsonalak BEKAK izeneko fitxategi automatizatu batean gordeko dira, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak du titulartasuna. Helburua karrera judizial, fiskal, idazkari judizial eta auzitegiko mediku postuetarako oposizioak prestatzeko laguntzak jarraitzea eta kontrolatzea da. Aurrez Datuak Babesteko Agentziari jakinarazi zaio, datuak segurtasun osoz gordetzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak dituelako.
Izaera pertsonaleko datuak babesteko dagoen araudiaren arabera, DBLOk espresuki aitortzen duena betez datuetara sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta datuei aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin harremanetan jarriz, Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.»

ANEXO I

1.– Datos de la convocatoria:
Denominación de la convocatoria. .....

Boletín Oficial del País Vasco. Número.....Fecha.....

2.– Datos de identificación del/la solicitante:
Nombre. .....DNI .....
Domicilio. .....Teléfono.....
Localidad. .....Territorio Histórico.....
Banco .....
Sucursal. .....N.º de Cuenta. .....

3.– Oposición a la que opta el/la solicitante:

4.– Datos del preparador/a:
Nombre del Preparador/a. .....
Profesión. .....

5.– Declaro reunir todos los requisitos para acceder a la concesión de la beca.

6.– Declaro no estar sancionado/a penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

7.– Acepto el compromiso de someterme a las normas de la convocatoria y de facilitar la información y documentación que se solicite.

8.– Adjunto la documentación exigida en la convocatoria.

9.–Deseo participar en las pruebas de acreditación del conocimiento de Euskera Sí ☐ *No* ☐

.....de ..... de 2011
(Firmado)

«Los datos personales que usted nos proporciona pasarán a formar parte de un fichero automatizado denominado BECAS, titularidad de la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, cuya finalidad es la de seguir y controlar las ayudas para la preparación de las oposiciones de la carrera judicial, fiscal y cuerpo de secretarios judiciales y médicos forenses, previamente notificado a la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuenta con las medidas de seguridad necesarias para garantizar la total seguridad de los datos.
En cumplimiento con la normativa existente sobre protección de datos de carácter personal, usted podrá ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición que expresamente reconoce la LOPD poniéndose en contacto con la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.»

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

ORDAINKETATARAKO DATUAK / *DATOS PARA LOS PAGOS*

DATUEN ALTA EDO ALDAKETA / HIRUGARREN INTERESATUA
ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS / TERCERO INTERESADO

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK (A)/*DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO (A)*

(1) NAN/IFZ
DNI/CIF. .....
(2) Bi abizenak eta izena/ Sozietatearen izena
Dos apellidos y nombre / Razón Social .....

HELBIDERATZE-DATUAK (B)/*DATOS DE DOMICILIACIÓN (B)*

Helbidea
Domicilio.....
Posta-Kodea Udala
Código postal: ..... *Localidad*: .....
Lurraldea
Provincia .....

BANKUAREN DATUAK/*DATOS BANCARIOS* (3)

Bankua *Banco*	☐☐☐☐
Agentzia *Agencia*	☐☐☐☐
K.D. *D.C.*	☐☐
K. korrontea *C. corriente*	☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
Jabea *Titular*	

Bankuaren adostasuna *Conforme banco*	Hirugarrenaren adostasuna *Conforme tercero*	Sailaren onespena *V.º B.º Departamento* (2)	Kontabilitatearen onespena (2) *V.º B.º Contabilidad*
Sinadura eta Zigilua *Sello y firma*	Sinadura eta Zigilua *Sello y firma*	Baimenduriko sinadura *Firma autorizada*	Baimenduriko sinadura *Firma autorizada*

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak jakinarazten dizu, dokumentu/ inprimaki/formulario honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1- 01010 Vitoria-Gasteiz..	*En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Hacienda y Administración Pública, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública: calle Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.*